


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2022-03-25 / 728 ZENBAKIA / 18. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM


Egape dantza- taldearen erakustaldia

Dozenaka lagun dantzan aritu ziren San Juan plazan, aurreko larunbatean. Boluntariotzan ari diren ekimen eta pertsonen aldeko ekimena izan zen. / 8-9

Andoaingo ikerketa historikoak biltzen dituen Leyçaur aldizkaria 16. zenbakira iritsi da / 2-3

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



Bertsoak Saharako herriaren alde

Garrantzia berezia hartu du igande honetarako Hurria Saharak antolatu duen saioa / 16

euskara bada errenta

**ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ**

APIRILAREN
4TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.urnieta.eus





Natalio Pajarin Garagorri Sorabillako maisuaren biografia bildu dute azken zenbakian. Argazkian, haren ondorengoak, Karmele Otaegi ikerlariarekin. AIURRI

Aldizkariaren 16. alea

Lau ikerlarien lanak bildu dituzte Leyçaur aldizkariaren 16. alean: Aritz Diez (Andoaingo Goikoplaza), Karmele Otaegi (Natalio Pajarin eta Sorabillako eskola), Marta Trutxuelo (Zinea eta zinemak Andoainen) eta Xabat Petrikorena (Andoaingo hirigintza ardatz duen etxebizitza auziarekiko hurbilketa). 15 euroko prezioan salgai dago Bastero Kulturgunean eta Delgado, Ernaizta eta Stop liburudendetan.

Xabier Lasa ANDOAIN

Leyçaur ikerketa historikoen aldizkariaren zenbaki berria argitara eman du Andoaingo Udalak, Artxiboak egiten duen lan eskergaren bitartez. 90eko hamarkadan ekin zion ikerlan historikoak argitaratzeari, eta, geroztik, Andoaingo historiaren ertz ugari landu ditu: Andoain izeneko toki Tolosa udalerriko jurisdikziotik berezi zeneko azterlana, Andoaingo benefizentzia eta ongizate sozialaren bilakera historikoa, Andoaingo modernizazio prozesua...

Aldizkaria izena hartzen badu ere, argitalpen bakoitzak liburuen forma eta tamaina du.

2022ko otsailaren 25ean egin zen zenbaki berrienaren aurkezpen-ekitaldia, eta denen artean protagonismo berezia hartu zuen Natalio Pajarin Garagorri. XIX. mendearen hondarrean eta XX. mendearen hasieran, 18 urtez, Sorabillako maisua izan zen. Haren ondorengoak hurbildu ziren aurkezpen ekitaldira. Karmele Otaegi izan da azterlanaren egilea eta Bastero Kulturgunera hurbildu ziren ondorengoei honako hau adierazi nahi izan zion: "Pertsona kultua izan zen, bere burua

**ANDOAINGO
HISTORIAREN ERTZ
UGARI LANTZEN
DITUZTE LEYÇAUR
ALDIZKARIAN**

Ikerketa historiko berriak

Zenbakiz zenbaki, aberastuz doa Leyçaur Andoaingo ikerketa historikoen aldizkaria. Goikoplazaren historia, etxebizitzaren garapena, zinemaren ibilbidea eta Natalio Pajarin Garagorri Sorabillako maisuaren biografia bildu dituzte azken zenbakian



Karmele Otaegi, Marta Trutxuelo, Maider Lainez alkatea, Xabat Petrikorena eta Aritz Diez aurkezpen ekitaldian. AIURRI

berrasmutzen jakin zuena; au-sarta izan zen, eta, Daviden antzera, Sorabillan nagusi zen Larreta familia Goliathi aurre egin zion, arrazoia arma bakarra izanik. Bere ondorengoak harro egoteko moduan zarete!".

Otaegiren lankide da Marta Trutxuelo, eta berak zinemaren ibilbidea aztergai izan du beste azterlan batean. Zinemazale amorratua izanik, Andoainen zinearen eta zinemaren historia aztertzea gustuko lantzat hartu zuen. "Irudimena erabiliz, pelikula bat ikustera" gonbidatu zituen aurkezpenera hurbildu ziren entzuleak. Pelikula hori zinemaren historian barrena egindako ibilbidea izan zen.

"Andoaingo hirigintza ardatz duen etxebizitza auziarekiko hurbilketa" da Xabat Petrikorenak osatu duen ikerketa lana. Egileak Basteron aitortu zuen konplexua dela ikergaia, eta arriskua bazuela: "Kontzeptu astunak erabiltzen dituen diskurtso akademikoan erortzea, alegia".

Aritz Diez Oronozek Goikoplazaren egiturak historian bizi izan duen garapena aztertu du. Lau aro ezberdinetan plazak izan duen garapena xehe du.

**BASTERON
ETA ANDOAINGO
LIBURUDENDATAN
15 EUROTAN SALGAI
DAGO 16. ZENBAKIA**

Leyçaur aldizkariaren 16. aleko lau ikerlarien azterlanak



AIURRI

ARITZ DIEZ ORONÓZ

Goikoplazaren egiturak historian bizi izan duen sinbologia eta garapena aztertu du. Historia hori aztertzen hasita, lau aro bereizi zituen: "Lehenak, Tolosako jurisdiziotik atera eta hiribildu propioa osatzeko abian jarri zuen prozesuarekin du zerikusia, XVII. mendearen lehengo erditik aurrera, zehatz-mehatz. Udaletxea 1.649 inguruan eraikitzen hasten dira. Eta ez du edozein tokitan jartzen, baizik eta muino batean, paisaia gailentzen den tokian. Horrela, gizarte horrek bere posizioa berresten du Gipuzkoako hiribilduen sarean".

San Martin Eliza XVIII. mendeko bigarren erdialdean eraikitzearekin batera gauzatzen da bigarren aroa, Diezen arabera. "Ameriketara joandako Agustín Leiza indianoak emandako diruarekin, Larramendiren bitartekaritzarekin eta Francisco Ibero arkitektoarekin sustatzen da proiektua".

Gerra karlisten amaierarekin, plazaren konfigurazioaren historiari lotutako hirugarren aroa dator. "Jada ezarrita zeuden Eliza eta Udaletxearen binomioari eta apaiza eta sakristau etxeari, gehitzen diete bi hormako frontoia, plaza oraindik gehiago luzatuz. Plaza sendotu egiten da aktibitate publikorako leku gisa".

Laugarren –eta azken aroa–, aztertzerako orduan, bi zati nabarmendu behar direla zehazten du Diezek. "XX. mendearen erdialdetik aurrera, zenbait etxe eta frontoia eraitsi egin ziren, eta 1975ean Poligono 17 izeneko hiri-plana ezartzeak plazako espazioa setiatzea ekarri zuen". Montserrat Ruiz Fabre arkitektoak proposatu zuen berreskuratze tipologikoa. Frontoi berria eraikiz, udaletxeak, elizak eta frontoiak protagonismoa hartu zuten".



AIURRI

KARMELE OTAEGI NEGREDO

Natalio Pajarin Garagorri XIX. mendearen hondarrean eta XX. mendearen hasieran 18 urtez Sorabillako maisua izan zena aztertu du. Udalaren ardurapekoa zen Seroretzen kokatzen zen eskola, eta, bertan, Pajarin eta bere familia bizi ziren; Larreta familia zen etxe horren jabea.

Penagarria zen Sorabillako eskola zein egoeran zegoen, eta, horregatik, Pajarin maisuak idatzi ugari zuzendu zizkien udalari zein Gipuzkoako hezkuntza-ordezkaritzari. Agiriak Udaltzako gortetzen dira, eta horiei esker osatu du istorioa Otaegik.

Pajarin eta Larreta familiaren artean hika-mikak gertatu zirenean, Andoaingo Udala boteretsuaren alde eta maisuaren kontra jarri zen, "eskola ixtea baitzen bere gogoan" Otaegiren esanetan. "Pajarin epaitegiatar jo arren, epaile batek ere berdintsu jokatu zuen, ahaltsuenekin lerratuz. Azkenean, Andoaingo Udalak 1908an lortu zuen nahi zuena, auzoko haurrak isolatuz eta horien eskola-absentismoa areagotuz".

Agiriak erakusten dutenez, Udalak inoiz ez zion jaramonik egin bere udal-langile zen Pajarin eskaerei irakaskuntzan jarduteko gutxieneko baldintzak hobetze aldera, "eta, ez hori bakarrik, izan ere, ez zion babesik eskaini Juan Bautista Larretak 1908an familia etxetik bota zuenean".

Gertakizun guztiak marmar-hots handia eragin zuen Andoaingo biztanleen artean, Otaegik aipatu zuenez. "Eta, handik zenbait urtera, aldizkari batean adierazten denez, andoaindarren irudimenean oraindik ere Juan Bautista Larretaren figura maisu eta seroren astintzaile gisa identifikatzen zen".



AIURRI

MARTA TRUTXUELO GARCIA

"Zinea eta zinemak Andoainean" izan da bere ikerlanaren izenburua. Zinemaren ibilbidea aztertu du, bertan eskaini diren filmen bitartez: Charlie Chaplinen eta antzeko zine mutua; *Tunika Sakratua*, *Ben Hur* eta tankerako superproduzio epikoak; *101 Dalmatians*, *Peter Pan* eta antzeko haur-filmak; *Rio Bravo* eta antzeko mendebaldeko bakeroak; *Azken kuplea* eta antzeko dramak; *Miguel Strogoff* eta antzeko abenturazkoak; *Psicosis* eta antzeko suspentsekoak...".

Zinema emanaldien ibilbideari erreposoa egin dio Trutxuelok: "XX. mendearen hasierara jo behar dugu. Kale Nagusian, Merkatu plazako etxearen parean, bi zutabeen artean oihala bat pantaila gisa ipini eta lehenbiziko proiektzioak zabaldu zituzten orduan; ibiltaria eta aire libreko zinema izan zen. 1923an Luminoso zinema aretoa ireki zuten. Urtetan aurrera, 40ko hamarkadaren bukaeran, Luminoso berritu, eta Iparragirre saloia ireki zuten". 50eko hamarkadan, berriz, Maiza zinemaren sorrera ezagutu zuen Andoainek. "Filmaren estreinaldien eskaintza zabalduz gain, Andoainek inoiz ezagutu duen ikusle afororik handiena ireki zuen; Basterok ez du gainditu ahal izan geroztik". Zinemaz gozatzeko ilara luzeak ere gogoan eduki ditu Trutxuelok. "Helduak irrikatan egoten ziren Gilda eskularruak kentzen ikusteko, eta, haurrak, Tarzanen abenturekin gozatzeko".

"1987tik aurrera, Udalak bultzatuta, zinea aire librean programatzen hasi ziren, uda partean, batez ere. Eta, 2003an, Bastero kulturunea zabaldu zen".

Biluzteak, zentsura, publizitatea, zinemaren gainbehera... Horiek guztiak aztergai dira lan horretan.



AIURRI

XABAT PETRIKORENA URANGA

"Andoaingo hirigintza ardatz duen etxebizitza auziarekiko hurbilketa" da Xabat Petrikorenak osatu duen ikerketa lana. Bi ikerketa-eremu aztertu ditu. Lehenak, "etxebizitza ulertzeko eta erabiltzeko dugun subjektibotasun kapitalistari egiten dio erreferentzia, etxebizitzaren auziarekin lotura duena. Eta bigarrenak Andoaingo hirigintza du jomuga, alegia, etxebizitzarekiko ikuspegi horrek dakartzen espazioaren gaineko botere praktikak edo hirigintzak zer nolako talkak sortzen duten espazio batekiko".

Bi arlo horietan gizakiek boterearekiko baldintzatutako subjektu gisa dihardute, "bai espazioa nola kontzebitzen dugun ulertzean, bai hirigintza praktikak gauzatzen direnean". Subjektibazioak zer esan nahi duen azaldu zuen: "Gizakiok inguratzen gaituenarekiko baldintzatuta gaude; kontzeptu hori hegemonia kulturalaren barruan ulertu behar da, eta horixe, klase dominatzaileak bere etengabeko onurarako gizarte zehatz eta anitz baten gainean inposatzen duen mundu ikuskera litzateke. Horrela, ikuskera horren parte diren norma kulturalak eta ideologikoak gizartearen baitakoak izango balira bezala antz ematen ditugu, hau da, mentalitate neutro baten antzera, eguneroko egiten ditugun eta normalizatzen dauzkagun ekintzak balira bezala".

Hegemonia kultural horren aurrean, Petrikorenak beharrezkotzat jo zuen diskurtso kritiko bat sortzea, "kontra-hegemonikoa izango dena, hain zuzen. Izan ere, irakurketa horrek egungo etxebizitza-politika guztiak jatorrian duten klase eta botere interesak azaleratzen du"

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

HELENA ZUBILLAGA ANDOAIN

Zenbat geratzen den ikasteko

Batzuetan, kafetegian egoten da; ez da gaztea. Irakurtzen eta idazten ikusten dut eta galdetzeraz atrebitu naiz: Jauna, zer irakurtzen duzu? Zer idazten duzu? Eta berak, "pixka bat hemendik eta beste pixka bat handik irakurtzen dut, pentsamenduak idazten ditut, adibidez gizon eta emakumearen berdintasunari buruz, generoari buruz, historiari buruz, Makiei buruz, beno, egia esan, ikasten dut, etengabeko ikastun naiz". Tertulian aritu gara eta inoiz entzun ez ditudan hitzak izendatu ditu. Harrituta, pentsatu dut: Oh, zenbat geratzen den ikasteko!!

Martxoan emakumearen nazioarteko egunari bideratu zaio eta transfeminismoari buruzko hitzaldi batera joan nintzen. Berrirori gauza bera, inoiz entzun gabeko hitz batzuk entzun nituen, beste batzuk ezagunak bai, baina nahiko berriak ere. Terminologia, oro har, gizartean sortzen diren aldaketak, ohitura berriak eta errealitate desberdinak hobeto edo errazago ulertzen langutze asmoz sortu eta berritzen da, besteak beste. Beraz, neurri handi batean denok gara kafetegiko jauna bezalakoak, etengabeko ikastunak: ikasi dugu, adibidez, tortillera haiek, gaur lesbianak direla, baita

marikoi haiek egun gay ere. Homosexualitatea ezagutu dugu eta ulertu ahal izan dugu zer den, bisexualitatea, transexualitatea, genero, transgenero, binario, ez binario, queer, disforia, gizarte patriarkala, heteropatriarkala, heteronorma... Horrela, hamaika termino aldatu dira erritmo azkarrean. Batze batzuk, aldiz, lehendik zeuden eta ordezkatu egin ditugu, pertsonen irizpideak eta pentsatzeko moduak ere azkar baina ahalegin handiagoarekin aldatzen joan diren modu berean.

Azken urteotan azalarazten joan diren termino guztien artean, agian indar gehien hartu duena "transexualitatea" da, errealitate horrek ikusgarritasun handiagoa hartu duen modu berean. Gizateria existitzen denetik, trans pertsonak beti egon dira eta, laurogeita hamarrek hamarkadaren bukaeran, lehenengo Trans legea aldarrikatu zenean ere bazeuden. Lege hark alderdi legalak eta "beren izaerari datxezkion" eskubide guztien

TRANS AURRIZKIAK BIDAIA BAT IRADOKITZEN DU, SEXUALITATEAREN BARRENA EGINDAKOA

aitorpena arautzen zuen, lege hark arazo batzuk konpondu zituen eta trans pertsonak onartuago eta defendatuago sentitzeko balio izan zuten beste alderdi batzuk ere jaso zituen. Nolabait, gizartearen ikusgarritasuna eta onarpen handiagoa lortzeko bideari ekiditeko abiapuntua izan zen, eta aukera eman zuen transexualitatearen eremu guztietatik joratzeko eta tratatzeko beste modu egokiago batzuk birpentsatzen jarraitzeko.

Lehen lege haiek zaharkituak geratu dira, eta, horien ordezkari, beste batzuk ezartzea lortu da, iragaitza-prozesu horretan modu batera edo bestera murgilduta dauden pertsonen aurre egin behar dieten egoerari erantzuteko. Azken legeak alde batera utzi du transexualitatea sendabidea behar duen patologia psikiatrikoa delako ustea, ez da tratamendu kirurgikoa edo izen-aldaketarik eskatzen sexuaren erregistro-zuzenketa egin ahal izateko, kendu egin da dokumentazio medikoa aurkezteko betebeharra, eta legeak gorputzaren autodeterminazioa defendatzen du.

Trans aurrizkiak bidaia bat iradokitzen du, eta, zehazki, transexualitatearen sexualitatearen zeharrek

bidaiaren batean pentsatzera garamatza eta oraindik perfektuak ez diren legeek, bidaiaren hori ahalik eta erosoena eta bizkorrena izan dadin laguntzen dute. Baina urte hauetan, legeeko esparrutik urrun askotariko galderak sortzen joan dira, zer da emakume bat izatea? Zer da gizon bat izatea? Subjektu batek sexua alda al dezake? Gizon edo emakume izatea aukeratzea? Izen propio bat aukeratzea? Zein dira gorputzaren eraldaketek transexualaren psikismoan dituzten ondorioak?

Gaur egun, transexualtzat ezagutzen dugunak lotura handia du teknologia medikoarekin, hormona tratamenduarekin, kirurgiarekin, pertsona transexuala espexetik askatzeraz bideratutako interbentziorekin, berezkoa ez duen gorputza izatea dakarrelako. Transexualitatearen existentziari buruz aspalditik dakigu, baina oraindik prozesu enigmatikoa izaten jarraitzen du, bere indibidualtasunean entzutea eskatzen duena; lagunarte olean ibiltzea merezi duen bidaiaren da, galderaren erantzuna aurkitzen lagunduko duena: nork idazten du patua, anatomia ala desirak? Oh, zenbat geratzen den ikasteko!

POSTONTZIA

LAB SINDIKATUA BETERRI-BURUNTZA

Salaketa

Aurreko larunbatean, BU40G lineako langileak Ertzaintzara deitu behar izan zuten, gertatzen ari ziren istiluak zirela eta, bere burua arriskuan ikusten zuelako.

Onartezinak dira langileen aurka gertatzen ari diren erasoak. Ezin dugu normaltzat eman, asteburuetan, bereziki, langileak beldurrez eta ezinegonaz lanera joan beharra.

Horren guztiaren ardura Diputazio zein enpresena da, bereziki. Hauek zerbitzua eman bai, baina hau modu seguru batean eman dadin hartu behar diren neurriak ez dituzte hartzen. Dagoeneko nekatzen hasi gara, nahiko gogorra da asteburuetan lan egin behar izatea eta gau osoan egin behar izatea, gainera. Eta hori guztia beldurrez egin behar al dugu? Ez gaude hori onartzeko prest.

Baina honen ardura nagusia Foru Aldundiarena eta enpresena bada ere, ezin dugu erabiltzaileen ardura ezkutatu. LAB Sindikatutik erabiltzaileei honako hau eskatzen diegu: utzi langileak bakean. Denak gara langileak. Gure artean babestu eta zaindu beharrean, gure artean erasotzen bagara ez goaz ongi. Langileen arteko elkartasunak berebiziko garrantzia du garai hauetan, bereziki, baita parrandan ere.

SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

**Andoaingo
Bastero kulturgunean
Martxoaren 27an
12:00etan**

Sarrerak salgai: Delgado,
Ernaitza, Stop eta Urrats



6€

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



ANDOAINGO UDALA



**Alaia Martin
Iker Zubeldia
Oihana Iguaran
Aitor Mendiluze
Maialen Lujanbio
Beñat Gaztelumendi**
Gai-jartzailea: Maddi Etxeberria



Lapurreta saiakera ezberdinak

Ostiraletik larunbaterako gauean lapurreta saiakera ezberdinak egin zituzten Andoainen, Zumea plazan eta Zumea kalean. Bi tabernatan lapurreta egiten saiatu ziren, eta baita farmazia batean ere. Bizilagun batek alerta jo zuen eta Ertzaintzak bi pertsona atxilotu

zituen. Goizeko lehen orduan, ikerketa abiatu zuen Ertzaintzak, eta haien agerpena nabarmena zen gertakariak jazo ziren tokian. Ezusteko handia izan zen merkatariarentzat. Beranduago, lanari berrekin zioten.



Txotx, Egunean Behinen alde

Egunean Behin lehiaketa martxan jarri da, eta zazpigarren zozketaren irabazlea "Ibil87" lehiakidea izan da. Aurreko astean "Goiatz" andoainarra izan zen irabazlea (argazkian, haren etxekoa saria eskuetan duela). Denek ere Mizpiradiko sagardoa eraman dute etxera. Bitartean, lehiaketa martxan dago. Zortetik onena "Aiurri" taldeko kideei.

GORA ETA BEHERA



Andoaingo Txirrindulari Eskolaren keinua Aiurri

Ibilgailu berria du Andoaingo Txirrindulari Eskolak, eta babesleen logoen artean Aiurri hedabidearena txertatu dute. Ez da berria, baina horrek ez du kentzen ilusio handia egiten diola lantaldeari. Eskerrik asko eskolako arduradunei. Segi ezazue orain arte bezala harrobia lantzen!



Andoaingo Txirrindulari Eskolak denboraldi berriari ekin dio. Batetik bestera ibiltzeko ibilgailua prest du, babesleen logotipoak argi eta garbi azalduz. Aiurri tarte eskaini dio. ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA



Larramendi Bazkunaren biltzarra

Larunbat honetan, urteko biltzarra egingo dute, goizeko 10:00tan hasita. Bilera Andoaingo Urigainen izango da, eta bertaratu ezingo dutenek Zoom bidez egin ahal izango dute sarbidea bilerara. Bazkideek informazio guztia eskura dute, webgunean. Bazkideren batek informazio osagarria nahi izanez gero, harrera@larramendibazkuna.eus e-postara idatzi behar du.

aek
22.korrika

HITZ EKIN



Aiurri.eus webgunean
KORRIKA 2022 atal berezia

Albisteak, deialdiak...
Aiurri Korrikarekin bat eginik



Orbelango langileek greba mugagabeari ekin diote soldata duin bat eskatzu. AIURRI

Langileen greba Orbelanen

Bazkardo auzoan kokatzen den Orbalen Plasticos S.A. lantegiko langileak astearte goizean hasi ziren greba mugagabearekin. Zuzendaritzari lan baldintzak hobetu ditzan eskatzeko jarri dute abian mugagabeko protesta

Xabier Lasa ANDOAIN

Zuzendaritza eta langileen ordezkaritza sindikalak 2022 eta 2023 urteetarako hitzarmena negoziatzen ari dira egunotan, eta bien bitartean, langileek protestari heldu diote. Besteak beste, Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) gabetiko soldata igoerak, gaueko lanaren plusan hobekuntzak eta errelebo kontratua eskatzen dituzte.

Orbelan Plasticos S.A. CIE Automotive enpresa multinazional euskaldunaren taldekoa

da. CIE Automotive automozio-ko osagaiak ekoizten dituen enpresa bat da, eta Bilbon du egoitza. 24.400 langile ditu guztira, Europan, Asian, Ipar Ameriketara eta Brasilen banatuta. Egun, Orbelanek bi faktoria dauka, Andoainen bata eta Anoetan beste; guztira, 150 langile ditu Gipuzkoan. Langileen ordezkaritzari dagokionez, zazpi delegatu ditu ELAK eta bi UGTk. ELAKo ordezkaritza izakun Unanuak aditzera eman duenez, "2021an CIE-k 3 mila milioi euro

fakturatu zituen, eta 270 milioi euroko irabazi gordina izan zuen (dibidendutan 64 milioi euro banatuz)". Bestalde, Unanuak gaineratu du aintzat hartzeko datua dela emakumezkoak plantillaren %60a izatea. "Orbelan industriako enpresa bat izan arren, emakumezkoak da gehiengoa; gure ustez, ez da kasualitatea lantegi berean ezaugarri hori eta lan baldintza kaxkarrak batzea. Horrexegatik, astearteaz geroztik ekin zaion protestak kutsu feminista ere hartzen du".

IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Boteretsu ahulekin, ahul boteretsuekin

Maxima hori maiz erabili ohi dute munduko agintariek, izan demokratikoak izan diktadurak, izan estatu gobernua, izan autonomiak, izan... Egunero eskaintzen dizkigute adibideak. Ukraina-Erussiako gatazkara jo besterik ez dago horretaz jabetzeko. Maxima horren adibiderik ezin gardenagoa transmititu digu Espainiako gobernu-buru Pedro Sanchezek Sahara hizpide hartuta, egunotan. Sanchezek, beste behin, *realpolitik* deitzen den kontzeptu hori zertan datzan transmititu digu. Groucho Marxen esaera gogorarazi digu: "ez badituzu gogoko nire printzipio horiek, lasai, badauzkat-eta beste batzuk".

Hots: aurrean duzuna izan daiteke diktadorea, monarka absolutista, herria miserian daukan bitartean bera eta bere familia egunez egun aberatsagoa izatea helburu duena, NBERen ebazpenak behin eta berriro hankatartetik pasatzen dituen, beste nazio baten okupatzailea, zapaltzailea, hiltzailea, torturatzailea... Izan daiteke hori guztia eta gehiago.

Baina estatu-buru bada, munduko hainbat potentziek hornitzen duten ejertzito sendo baten buru bada, bere menpeko herrialdea mendebaldeko potentzientzat



Kanpamentu saharaiarrak. EL PERIODICO

geopolitikoki eta geostrategikoki aparteko tokian kokatzen bada, "gorrotagarria" den migrazioaren atean giltza eskutan badauka...

Bada, orduan, nire adiskidea izango da, eta amen egingo diet bere exijentziei.

Sanchezen azken erakustaldia makina bat egoeratan aplikatzeko modukoa egiten zaigu. Gurera etorrita, esate batera, ez ote ditu jarri hankaz gora, beste behin, "Giza eskubideak oinarri dituen zoru etikoa", "Hiltzea gaizki egon da" eta antzeko printzipioak? Ez ote ditu auzitan jarri, biolentziatzko iraganaz hausnartzeko herriz herri, borondate onez, osatu diren bizikidetzak mahaiak eta antzeko foroak?

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idadkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. WhatsApp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz



Egape dantza taldeak bat egin zuen ekimenarekin, eta, horri esker, San Juan plazan, azken urteotan gutxitan ikusi dugun kultur jardueraz gozatu ahal izan zen. AIURRI

Egaperen erakustaldia

Euskal Herri osoan barrena, ehunka dantzarik bat egin zuten Eibe elkarteak boluntariotza txalotzeko deitu zuen ekimenarekin. Dantza egin zuten hurkoaren alde lanean dabilzanen omenez. Urnietan, Egapek dozenaka dantzari elkartu zituen

Erredakzioa URNIETA

Elkarteak eta boluntarioak gure herriaren garapenean ezinbestekoak direla abiapuntu izanik, Eibe elkarteak Euskal Herri mailako ekimena deitu zuen. "Elkar+Ekin" izenburupean, hurkoaren alde lanean dabilzan elkarte eta pertsonak gogoan hartu nahi zituzten. Gipuzkoako Foru Aldundia lagun hartuta, dantza-saioa deitu zuten aurreko larunbatean. Eskualdean Urnietako Egape dantza taldeak bat egin zuen ekimenarekin, eta beren talde guztiak dantza egi-

tera irten ziren. Goizeko 11:15ak aldera, talde bakoitzak bere saiotxo eskaini zuen San Juan plazan. Eta eguerdiko 12:00tan Elkar+Ekin ekimenarekin bat egin zuen, "Martxa Baten Lehen Notak" abestiaren doinupean dantza eginez. Laboaren kantua aukeratu izanaren arrazoia azaldu zuten antolatzaileek: "Abesti honen aukeraketa ez da zoriz izan; izan ere, abestiak gordetzen duen mezua guztiz bat dator gure ekimenarekin. 1977 urtera salto egin behar dugu. Hasiera batean Martxa baterako oharrak

izendatu zuen Mikel Laboak. Gizakien eta herrien arteko elkartasunaren ideiarekin aldeko martxa da, herri eta gizaki bakoitzari dagokion begiramena eta ezagutzatik abiatuz. Laboak martxaren musika egiten zuen bitartean J.A. Artzeri eskatu zion testu bat idazteko, aurretik aipatutako ideia orokor horietan oinarrituz. Gure helburuekin bete-betean jotzen duen abestia aurkitu genuen".

Eguraldia lagun, ekitaldi polita izan zen dozenaka dantzari eta ikuslerentzat.



Eguraldia lagun izanik, saioa ikusgarria izan zen. AIURRI



Taldea aritu ziren dantzan, saioaren hasieran. Ondoren, guztiak batera atera ziren plazara. AIURRI



Plazaren ertz ezberdinetatik abiatu ziren dantzariak. AIURRI



Adin guztietako dantzariak elkartu ziren San Juan plazan. AIURRI



Dantzari ugari elkartu zen plazaren erdian, eta dozenaka ikusle beren buelta osoan. AIURRI



Aurreko udan saio ugari eskaini zituzten Euskal Herrian barrena. Igande honetan Urnietako Saroben ariko dira. AIURRI

Mikra ikuskizuna, Saroben

Irati Gonzalez Jaimerena eta Koldo Arakistain Irazusta 'Mikra' ikuskizuneko partaideak dira. Generoak, aurriitziak eta ezarrita dauden estereotipoak zein rolak eztabaidan jarri dituzte "Mikra" zirko ikuskizunean. Igandean Urnietan ariko dira



Koldo Arakistain Irazusta eta Irati Gonzalez Jaimerena 'Mikra' ikuskizuneko partaideak dira. AIURRI

Irune Alfonso ANDOAIN

Nola identifika gaitzke erakusten dugunaren eta garenaren artean? Aske bizi dugu geure nortasuna? Galdera potolo horiei erantzuna eman nahian, Zirkuolan aritzen diren Irati Gonzalez Jaimerena eta Koldo Arakistain Irazusta akrobatak "Mikra" ikuskizuna ondu dute Amancay Gaztañaga Sagarzazu eta Iraia Elias Muniain aktoreekin batera. Lurrean eta trapezioan egindako binakako akrobazien bitartez, oihalak maisuki erabiliz, eta antzerkia eta dantza uztartuz, saio ikusgarriaz gozatuko dute Urnietara hurbiltzen direnek. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da ikuskizuna.

Zer da "Mikra" ikuskizuna?

Koldo Arakistain: Generoa, rolak eta genero estereotipoen gaineko gure gogoeta guztiak batzen dituen pieza da.

Irati Gonzalez: Zirkuak eta akrobazia dira nagusi, baina badu ere dantzatik eta antzerkitik.

Nola sortu duzue istorioa?

I.G.: Jendeak gogoko duen ikusgarritasuna du zirkuak, eta, horren bitartez, gauza asko kontatu daitezke. Gure bizitzan izan diren gertaerak mahai gainean jartzea behar genuen, terapia moduan erabiltzeko, eta hori, generoarekin zerikusia duten eta bizi izan ditugun egoerekin gertatu da.

K.A.: Bestearen rolean asko identifikatzen gara gu.

I.G.: Horrek generoarekin du lotura zuzena, zeren zenbait ezaugarri gizontasunari atxikitzen baitzaizkio. Ordea, beste hainbat emakumeari, tartean, sentibera izatea. Hemen gizon bat eta emakume bat gaude, eta hori da esan nahi genuena, hain zuzen: "Kontuz ikusten duzuenarekin, guk, agian, ez ditugu ezaugarri horiek". Mezu hori gazteei adierazi nahi diegu.

Zein da zuen helburua?

I.G.: Helburu nagusia da iruditeria aldatzea. Gizartearena orokorrean.

K.A.: Sortzen ditugun irudiak oso indartsuak dira, eta horregatik, aipatzen da iruditeriarena. Pieza ikusi ondoren, bigarren

"AKROBAZIAK DIRA NAGUSI, BAINA UNEORO GURE BARNE GATAZKAK KONTATZEN DIRA"

eta hirugarren egunean oraindik irudiak etortzen zaizkizu burura.

I.G.: Garena islatu nahi dugu, eta akrobazia erabili. Horretarako oso garrantzitsua baita. Euskal Herrian dantzak eta antzerkiak badute bere lekua, baina zirkuak oraindik sortzen ari da, ezagutzera ematen ari da. Hori da nire artea, nik barrutik hori daukat, eta horrela gustatzen zait transmititzea.

K.A.: Arte eszeniko guztiak lotuta daude, denek edaten dute denetatik, eta zirkuak bere barne hartzen ditu beste guztiak. Askotan zirkuak, antzinako zirkuaren irudierekin lotzen dugu: animaliak, karpa bat... Gaur egun, kalean egin daitezkeen zerbait da.

Mezua iristen al da?

I.G.: Bai. Leioan egin genuen emanaldian, Galizian lan egiten zuen emakume bat zegoen. Emanaldia ikusi ondoren, gurekin kontaktuan jarri zen, ikaragarri gustatu zitzaiola esateko. Hizkuntza aldetik, ez zuela ezertxo ere ulertu aipatu zigun, izan ere, piezak off audioak ditu, guztiak, euskaraz. Hala ere, mezua iritsi zitzaion, generoarekin lotutako hainbat kontu adierazi zizkigun emakumeak eta orduan konturatu ginen, hizkuntza ulertu gabe ere, guk adierazi nahi duguna iristen eta ulertzen dela. Izugarria izan zen guretzat.

Txikieneke ere ulertzen dute, adinaren arabera gauza batzuk gehiago besteak baino, baina irudi eta soinu potenteak daude eta geratzen dira elementu horiek.

K.A.: Zeharo desberdina da hasieran planteatzen dugun egoera eta pieza nola amaitzen den. Pertsonaiekin hankak gora eta buelta emanda amaitzen dute, hasierako egoeratik nola ateratzen diren ikusten da.

Transmititu nahi duzuen, mezua eta zirkuak, konbinazio zaila al da?

K.A.: Egiteko modua akrobaziak dira, baina uneoro gure barne gatazkak kontatzen dira, orduan, gure egitak egindako akrobaziak dira eta gu garena ateratzen da; bata gabe bestea ez dago.

I.G.: Oso orekatua da. Akrobazia da erabiltzen dugun hizkuntza, eta, ondoren, mezua dago. Ez da bata edo bestea, biak elkartuta, bata bestearekin egiten da. Akrobaziaren ikusgarritasuna erabiltzen dugu, baina teknikoak izaten saiatu gara.



Mikel Abrego, Mariano Hurtado eta Eneko Abrego, joan zen larunbatean, Gernikako Lekuek jaialdian. MUSIKAZUZENEAN

-Gailu musika taldearen aro berria abiatu da

Zuzeneko emanaldiei ekin die Mikel Abrego andoaindarrak sustatu duen musika proposamen berriak. Joan zen larunbatean, Gernikako Lekuek jaialdian izan zen estreinaldia, eta, datorren apirilaren 3an, Donostiako Le Bukowski ariko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Mikel eta Eneko Abrego anaiak eta Xabier Olazabal "Drake" adiskide fidela musika abentura ezberdinetan ibilitako hiru lagun dira, eta, iazko ekainean -Gailu taldea egitasmo berria aurkeztu zuten. "Gaua" kantua eta bideo-kliparekin berabiatze bat irudikatu zuten, aspaldian izen berearekin hainbat kantu aurkeztu zituztelako.

Entsegu lokaleko esperimintazio eta jolasek, -Gailu taldearen berpiztea ekarri dute, lurpetik atera, eta bizi berri bat eman diote ia hogeit urte lozorroan egon den egitasmoari. Ahotsa, bateria, baxua eta samplerak dira musika proposamen honen osagarriak, eta jendarean aurkezteko "Begiak, Egiak Ba Ote?" (bIDEhUTS) izeneko disko berria kaleratu zuten.

Udan entseguei ekin zieten, eta udaberria iristearrekin batera zuzeneko emanaldiak loratu dira. Tartean, behin behineko aldaketa batekin.

Gaurkoz, Xabier Olazabal ez da zuzenean ariko, eta haren ordez, Mariano Hurtado Inoren Ero Ni taldeko baxu-jotzailea ari da. Hurtado lagun zutela, beraz, Abrego anaiak lehen emanaldia egin zuten Gernikako Lekuek jaialdian. Iparragirre aretoan izan zen berrabiatzearen estreinaldia, eta zaletuen artean ikusmin handia nabari zen.

Apirilaren 3an, Donostian

Datorren emanaldia Le Bukowski aretoan eskainiko dute, eta hura ikustera joan nahi duenak sarrerak agortu aurretik aldeztu aurretik erosi beharko ditu. Dagoeneko, salgai daude On Line entradium plataforman. Hurrengo emanaldia apirilaren 7an izango da, Bilboko Kafe Antzokian.



Mariano Hurtado, Mikel Abrego eta Eneko Abrego. GAILU



AIURRI

La Jodedera, Txuri Beltzen

Txuri Beltzen ezusteko ospakizuna prestatu zuten, larunbat eguerdian. Kubako eta Karibeko doinuak zuzenean eskaini zituen La Jodedera talde ezagunak, eta mojitoa dastatzeko aukera izan zen ere. Udaberriaren etorrerarekin, eta, eguraldia lagun, musika saio ederra izan zen larunbat eguerdikoa.



AIURRI

Oilar festa Goikoplazan

Metrik jaialdia ospatu zuten Andoainean, joan zen larunbatean. Eta, tartean, estilo librean aritzeko lehiaketa antolatu zuten Goikoplazan. Errimak uztartuz, oilar-joko modukoa izaten da, eta argazkian ikusten denez, musika-aldaera honek zaletu ugari erakartzen ditu. Lehen ere egin izan dira horrelako musika eta errima lehiaketak Leizaur parkean.





Kaleberrian ibilbide itxian egiten da lasterketa. Korrikalarientzat eta ikusleentzat ikusgarria da. **AJURRI**

Andoain, gaztetxoentzat abiapuntua

TXIRRINDULARITZA Benjamin, alebin eta infantil mailako txirrindularientzat denboraldiko lehen lasterketa izan zen, Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideen eskutik iritsi zena. Harrobia lantzen jarraitzeko ezinbestekoak dira horrelako lasterketak

Erredakzioa ANDOAIN

Izaro Zuriarrain junior mailan aritzen den txirrindulari prestua da. Xabat Zuriarrain, Oihan Mitxelena, Izaro Etxarri, Irati Aranguren, Itziar Alkain, Markel Tamayo, Peru Sarasola edota Intza Navarro gogo biziz ari diren kadete mailako lasterkariak dira. Guztiak ere, Euskal Herriko errepideetan, Andoaingo Txirrindulari Eskolako mailotari dizdira berezia ematen diote. Maila horietara iritsi badira herrian bertan eskaini zaien babesa eta irakaskuntzari esker izan da. Han eta hemen, txirrindulari-eskolak krisian dauden bitartean, Andoaingoak sendo eusten dio bere egitasmoari. Txirrindulariei garatzeko aukera eskainiz, eta berriei pedalkadaz pedalkada lehen pausuak ematen lagunduz. Denis, Unax, Ugaitz, Liher, Lizar, Kerman Maddi, Olaia edota Urko eskolako kimu berriak dira. Larunbatean denboraldiko lehen lasterketa herrian bertan izan zuten. Harrobia badago, maila ezberdinetan txirrindulariak daudelako, haiek zaintzeko eskola badagoelako. Ekin eta jarrai.



Segurtasun eta prebentzio neurri guztiak hartu zituen Andoaingo Eskolak. **AJURRI**



Saritutako txirrindulariak, Romero eta Lainez Udal ordezkariekin batera. **AJURRI**



AJURRI

Ainhoa Jauregi, podiumean

LASTERKETAK Larraul-Ernio-Larraul mendi-lasterketaren edizio berria egin zen igandean, eta Ainhoa Jauregi urnietarra hirugarren sailkatu zen. Ongi ezagutzen du lasterketa, eta baita podium hori ere, 2019an garaile izan baitzen. Aurtengo edizioan, Laiane Arrospe nagusitu da. Gizonezkoetan, probako marka onena duen Hassan Ait Chaou billabonatarrak irabazi zuen.



EUSKALDUNA

Hirugarren postuaren bila

ARETO FUTBOLA 1. mailako liga azken txanpan sartu da, eta ligaxka bukatzeko bost jardunaldi baino ez dira falta. Martutenen partida galdu zuen Euskaldunak (3-1), eta datozen bost jardunaldietarako erronka zehatza dute: Hirugarren postua eskuratzea. Oartzun taldea dago hirugarren, 45 punturekin. Eta 42 puntu ditu Euskaldunak. Asteburuan urdiefiek etxean jokatuko dute.



Urrietako
udala



Pala topaketako partaideak larunbat arratsaldean elkartu ziren. AIURRI

Eskualde mailako pala topaketa

PALA Gaztetxoan eta helduen mailako jardunaldia antolatu zuten Arrate pilotalekuan, joan zen larunbatean. Helburua argia zen: palan aritzea, lagunartean. Giro ederrean igaro zen jardunaldia, eta baita hari amaiera emateko afaria ere

Erredakzioa ANDOAIN

Garai bateko ohiturak berreskuratzen ari dira, baita emakumeen kirol jardunean ere. Buruntzaldeko emakumeen II. Pala Topaketa izan zen iragan asteburuan, Andoaingo Arrate pilotalekuan. Hainbat adinetako emakumeak elkartzeko baliagarria izan zen. Txandaka aritu ziren, partida azkarretan.

Nerabeen mailan, sei kidek hartu zuten parte, eta, bestalde, adinez nagusikoen taldean, berri, hogeita batek. Bikoteak nahastuta, kide bakoitzak bi partida jokatu zituen. Oso balorazio positiboa egiten du antolakuntzak, giro ederra izan baitzen pilotalekuan. Gainera, jokalariek guztiak afaria egin zuten ostean, eguna borobiltzeko.

LAGUNARTEKO AFARIAREKIN AMAITU ZEN PALA PARTIDEKIN HASITAKO JARDUNALDIA



Adin guztietako partaideak elkartu ziren aurreko larunbatean. AIURRI



Lagunarteko partida ugari jokatu ziren Arrate pilotalekuan. AIURRI



Oinatz Bengoetxea pilotaria. GAZTELEKU

Agurra Andoainen, Andoaingo pilotarien artean

PILOTA Jaialdi berezia prestatu du Gazteleku Pilota Elkarteak, Leitzako pilotariari aitortza adierazteko

Mikel Arberas ANDOAIN

Santakruzak apirilaren 29an abiatuko dira, eta nola gainera! Ikusmin handia piztu duen jaialdia antolatu du Andoaingo Gazteleku Pelota Eskolak. Izan ere, Bengoetxearen ibilbide profesionala agurtzeko pilota partida berezia antolatu du apirilaren 29rako. Arrate pilotalekuan izango da, Santakruz jaien hasierarekin bat eginez.

Estelarra, agurreko partida

Andoaindarrentzat gogoangarria izango da, leitzarra eskolako pilotariekin batera ariko delako. Honako hauxe da estelarra:

- Bengoetxea VI-Beloki.
- Eskudero-Usandizaga.


Berria txapelketa

Aurretik emakumezkoen Berria txapelketako finalaurrekoa jokatuko da:

- Arrizabalaga-Mendizabal.
- Larrarte-Capellan.

Sarrerak, eskuragarri

Sarreraren prezioa 10 eurokoa da; eta Gazteleku Pilota Elkarteak kideek erdia ordainduko dute.



Jaialdia iragartzeko afitxa. GAZTELEKU

16 urtetik beherakoek doan edukiko dute sarrera, errebotean. Sarrerak dagoeneko eskuragarri daude 673 780 101 telefono zenbakira deituta. Bizum bidez egin daiteke ordainketa.

Honako ohar hau zabaldu du Gaztelekuak: "Oinatz Bengoetxea pilotari handiak Andoaingo Arrate pilotalekuan jokatuko du apirilaren 29an. Horrez gain, Emakumezkoen Berria txapelketako finalerdia izango da. Zatoz jaialdiaz gozatzeraz!".

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 24

ANDOAIN Erakusketa

"Lumineszenteak", Mariezkurrena kazetaria eta Pastor argazkilaria. Emakumeen egoera gordina zapalduetako lurraldeetan.
Bastero. Apirilak 1 bitarte.

ANDOAIN Mahai-ingurua

"Emakumeen kirolaren ertzak". Nora Mendizabal pilotaria, Nahia Zudaire igerilaria, Larraitz Lukas futbol jokalaria ohia eta Ainarra Arratibel kirol kazetaria.
19:00, Bastero.

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

2022ko udaberriko eskaintza prest dago: batukada, tailerrak, autodefentsa feminista...
Informazioa:
berdintasuna@andoain.eus.

ESKUALDEA Errigora

Martxoaren 30era bitarte Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra eta kontserba, arroz, pasta eta lekale-sortak eskatu ahal izango dira, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.
Errigora.eus.

OSTIRALA 25

ANDOAIN Antzerkia

Chicas y chicos konpainiaren eskutik "El sol de york" antzezlan, gaztelaniaz.
20:30, Bastero.

URNIETA Musikala

"Coco" musikala Magaleko DBH2ko ikasleen eskutik. Bi saio izango dira. Sarrerak dagoeneko eskuragarri daude Magale-Salesiar ikastetxeko idazkaritzan. Euro 1eko laguntzaren truke, txokolate solidarioa jasoko dute ikusleek.
17:30 / 19:00, Sarobe. Euro 1.

IGANDEA 27

URNIETA Zirkoa

"Mikra", akrobazien bitartez, generoari eta identitateari buruzko hausnarketa egingo dute Irati Gonzalezek eta Koldo Arakistainek.
17:30, Sarobe.



Udal Musika Eskolako piano-jotzaile gazteak, artxiboko irudian. AIURRI

URNIETA Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen emanaldiak

Urnietako haur eta gaztetxoek emanaldiak, datorren aste osoan zehar. Kontzertuetara hurbiltzeko asmoa duenak gonbidapena eskuratu behar du alde zurretik. Sarobeko bulegoan edo bibe.me webgunean eskuragarri daude.

Martxoak 28 - Apirilak 1. Sarobe.

ANDOAIN Bertso-saioa

Alaia Martin, Iker Zubeldia, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzailea: Maddi Etxeberria. Sarrerak salgai Delgado, Stop, Ernaitza eta Urratsen.
12:00, Bastero. 6 euro.

URNIETA Parte-hartzea

Aurrekontu irekiak egitasmoan 16 urtetik gorakoek Udal aurrekontuko 150.000 euro zertan gastatzeko aukera dute. Internet edota buzoi ezberdinetan aurkez daitezke proposamenak.
Azken eguna.

ASTELEHENA 28

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen kontzertuak: Musika-tailerreko kontzertua.
17:00, Sarobe.

Ikasleen kontzertu orokorra.
19:00, Sarobe.

ASTEARTEA 29

URNIETA Kontzertua

Musika Eskolako kontzertuak: ikasleen kontzertu orokorra.
18:30, Sarobe.

ASTEAZKENA 30

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen kontzertuak: Musika-tailerreko kontzertua.
17:00, Sarobe.

Ikasleen kontzertu orokorra.
19:00, Sarobe.

OSTEGUNA 31

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen kontzertuak: Ikasleen kontzertu orokorra.
18:30, Sarobe.

OSTIRALA 1

URNIETA Kontzertua

Musika eskolako piano-ikasleak eta Easo abesbatzako bakarlariak.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia

"Tarara", Bilboko San Frantzisko auzoan 70eko hamarkadan kokatutako antzezlan. Sandra Ferrus, Kepa Errasti, Jurdana Otxoa eta hainbat aktore gehiago igoko dira taula-gainera.
19:00, Bastero.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Codigo emperador

Lar., 26. 19:30, 22:00.
Ig., 27. 19:30.

Ast., 28. 19:30, 22:00.

Super... ¿Quién?

Lar., 26. 17:00.

Ig., 27. 17:00.

Turandot, opera

Apirilak 12. 19:30.

Laburbira

Topaguneak antolatuta eta Udalaren laguntzaz, euskarazko film laburren zirkuitua ikusteko aukera.
Osteguna, 24. 19:00.



SINOPSIS



CODIGO EMPERADOR

Zuzendaria: Jorge Coira. **Aktoreak:** Luis Tosar, Alexandra Masangkay, Georgina Amoros, Maria Botto... **Herrialdea:** Espainia. **Generoa:** Thriller, intriga. **Iraupena:** 105 minutu. **Urtea:** 2022.

Espioitza eta drogak

Juanek zerbitzu sekretuentzat lan egiten du; arma-trafikoan parte hartzen duen bikote batengana gerturatzeko, susmagarrien etxean laguntzaile lanak egiten dituen Wendyrengana hurbiltzen da. Harekin harremana sendotzen du, eta gero eta konplexuagoa

bihurtzen ari da. Aldi berean, Juanek beste lantxo batzuk egiten ditu herrialdeko elite boteretsuenen interesak babesteko. Malagako zinema jaialdian egin dute estreinaldia. Jorge Guerricaechevarriak idatzitako gidoia izanik, emozioa ziurtatuta dago.

SUPER... ¿QUIEN?

Zuzendaria, gidoia: Philippe Lacheau. **Herrialdea:** Frantzia. **Generoa:** Dokumentala, feminismoa. **Iraupena:** 82 minutu. **Hizkuntza:** Komedia, parodia. **Urtea:** 2022.

Super heroiei buruzko komedia

Cedric aktorea da, diru gutxiarekin eta bere neska-lagunak berriki utzi duena. Film batean rol protagonista lortuko du, "Badman"

superheroiarena. Baina grabaketa saio batetik irten eta trafiko-istripu bat izaten du. Amnesiaekin esnatzen da. Egoera bitxiak gertatuko zaizkio.



Pastor eta Mariezkurrena. Apirilaren 1a bitarte zabalik dago erakusketa. AIURRI

Lumineszenteak, bortizkeria bizi duten emakumeak

Mariezkurrena kazetariaren eta Pastor argazkilariaren eskutik zabalik dago erakusketa, Basteron

Xabier Lasa ANDOAIN

“Diskurtso ofizialetan lekurik ez duten emakumeen testigantzak ageri dira erakusketan”, adierazi zuen Txitxu Ruiz kultura zinegotziak, erakusketaren irekieran. Mariezkurrena eta Pastorrek lau urtetan burutu duten egitasmoa azaldu zuten, Basteron egindako ekitaldian. Beren hitzetan, “bortizkeriazko giroetan bizi diren emakumeekin, beren eguneroko bizilekuan, jorratu ditugu elkarrizketak. Konplizitate espazio bat sortu genuen bakoitzarekin. Horrela, bizi izan dituzten bizipenak, biolentzia ikusezinak, sufrimenduak eta beldurrak ez ezik, aurrera ateratzeko kemena ere transmititu digute”.

Munduan barrera egindako bidaia ikasgai bikaina egin zaie la aitortu zuten Basteron. “Emakume izatea pasaporte izan da beren etxeetan sartzeko. Baina, era berean, konturatu gara aurrez

aurre genuen emakumea oso urrunekoa egiten zitzaigula. Bazuetan, handiagoa zela bereizten gintuena hainbat faktore zirela medio (kultura, erlijioa, klase soziala...), emakumeak izate hutsagatik eduki genitzakeen zubiak baino. Eta, halakoetan, zaplaztekoa jaso dugu, gure lekuan jarri gaituzte, kontziente izan gaituzten Lumineszenteak egin ahal izan badugu, hori izan dela emakume mendebaldarrak, zuriak, ikasketadunak eta abar garelako eta edozein unetan hegazkin-txartela erosteko ahalmen ekonomikoa daukagulako”. 24 emakumeren lekukotzak jaso dituzte lau urtetan, eta guztiak liburu mardul batera eraman dituzte. Erakusketa emakume horietako batzuekin osatu dute; besteak beste, India, Palestina, Dakota Nazioa (AEB) eta Euskal Herriko emakumei hitza emateaz gain, irudia jarri diete.



Pello Lizarralde izan zen 2020. urteko irabazlea, Argiantza obrarekin. AIURRI

111 Akademia Sariaren bigarren bozkaketa-txanda, martxan

Hilaren 27 izango da azken eguna bigarren txandan bozka emateko. Orotara, zazpi obra daude

Erredakzioa ESKUALDEA

111 Akademia Sariaren bozketaren bigarren itzulia abiatu berri da, 2021. urteko irabazlea nor den erabaki ahal izateko. Urtarrilaren erdian hasi zen hautaketa eta otsailaren 27ra arte iraun zuen.

Lehenengo itzulian, Eider Rodriguezen ‘Eraikuntzarako materiala’ eta Alberto Ladron Aranaren ‘Mendekuaren hazia’ izan ziren lanik bozkatuenak. Alabaina, Rodriguezen eta Ladron Aranaren lanen atzetik, berdinketa izan zuten bost liburuk, bozkei dagokionez. Ondorioz, hori ez apurtze aldera, aurten, zazpi, lan igaro dira bigarren bozketa-txandara.

Horrela, martxoaren 27a baino lehen bidali beharko dute akademiakideek honako liburu hauetako baten aldeko botoa, joan den urteko irabazlea nor den erabakitzeko:

- *Eraikuntzarako materiala.* Eider Rodriguez.
- *Mendekuaren hazia.* Alberto Ladron Arana.
- *Doneaneko alaba.* Juan Kruz Igerabide.
- *Euri zitalari esker.* Itxaro Borda.
- *Faith.* Lander Garro.
- *Herriak ez du barkatuko.* Irati Goikoetxea.
- *Izurdeen aurreko bizitza.* Kirmen Uribe.

ZAZPI OBREN ARTEAN ERABAKI BEHARKO DUTE AKADEMIKIDEEK GUSTUKOENA

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Anje!
Gure bihurritxoak 4 urte beteko ditu marxoaren 25ean. Jarrailu hain jator eta langile! Nere, Anne eta familia osoaren partetik.



ANDOAIN
Naiara Ocon Lertxundi
Zorionak politta! Handitzen ari zara, 7 urte beteko dituzu! Etxeko partez muxuak. Asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

ASTE SANTUA

DEIALDIA

Euskaldunako mendigoizaleen irteera Aste Santurako, apirilaren 14-18rako. Alacanteko Mariola eta Bernako mendilerroetan zeharkaldi bana. Informazio gehiago, 943 592 232 telefonora hots eginda (astearte eta ostegunetan, 19:00-20:30).

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA

Andoingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintzlagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

SALGAI

Etxeko arrautzen salmenta: 3 eurotan, dozena. **665 719 827**

Josteko makina, semi-industrial salgai, egoera eta prezio onean. Mari Karmen: **688 802 880**

“Oinak lurtean” ipinita dator Errigora

Hilaren 30era bitarte izango da aukera Errigorako tokiko produktuen eskariak egiteko, online

Erredakzioa ESKUALDEA

Nafar Hegoaldea oinarri duen proiektua da Errigora, eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, tokian tokiko produktuetatik abiatuta eta auzolana lanerako tresna nagusi.

Hala, urteroko ohiturari eutsita, hemen da udaberriko eskaintza, “Oinak lurtean”, lelopean.

Martxoaren 10etik 30era bitarte izango da aukera eskariak egiteko. Zer dago eskaintzan, baina? Bertako oliba-olio birjina

estra eta kontserba, arroz, pasta eta lekale-sortak eskatu ahal izango dira, euskaraz etiketatuta eta, auzolanari esker, ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Sorreratik, biderkatu egin da proiektuarekin bat egin duen herritar-kopurua. Hori horrela, baikor ageri dira antolatzaileak: “Gorako eskaera horrek balio behar du gero eta handiagoa izan dadin bestelako ekoizpen-ereduen arabera lantzen den lur-eremuaren zatia, eta bestela bana dadin bere uzta”.



Familia-argazkia. ERRIGORA



2019ko bertso saioan, bertsolariak eta Saharako herritarrak elkarrekin Basteron. AIURRI

Egoera puri-purian dela ospatuko da bertso saioa

Pedro Sanchez Espainiako Presidenteak Sahara eta Marokoren arteko gatazkaren gainean hartu berri duen erabakiak eztabaida bizia piztu du. Albisteen lerroburuetan dela iritsiko da Hurria-Saharak urtero antolatzen duen bertso saioa

Xabier Lasa ANDOAIN

Hautsak harrotu ditu Pedro Sanchezek Mohamed VI.a Marokoko erregeari oraindik orain bidali dion eskutitzak; izan ere, bertan aitortzen baitio Mendebaldeko Sahara Marokoko eremu autonomo bihurtzea dela gatazka gainditzeko aukerarik "serioena, errealistena eta sinetsgarriena". Nazio Batuen Erakundeak maiz atera izan ditu ebazpenak Saharako herriak

burujabe izateko eskubidea aitortuz, eta harridura eta haserrea eragin du Sanchezen azken erabaki horrek. Eskualdean, Andoingo Hurria Sahara elkarrekin elkarretaratzean parte hartzeko dei egin zien andoaindarrei. Ohar baten bidez honakoa adierazi zuten: "Une hauetan sahararriuen ondoan egon beharra daukagu, andoaindarren elkartasuna eta indarra beharrezkoa da aldarrikatzeko Saharako

etorkizuna bertako herritarrek erabaki behar dutela autodeterminazio erreferendum baten bitartez, Nazio Batuek ezarritako oinarrien arabera". Asteazken iluntzean elkarretaratzea deitu zuten Goikoplazan.

Andoainen eta inguruko herrietan aspaldikoa da Udal ordezkari guztien bitartez adierazitako elkartasuna. Urrutira joan gabe, otsailaren 24ko udalbatzan, Andoingo Udaleko lau

alderdiek (PSE-EE, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), Saharako herriaren aldeko adierazpen instituzionala onartu zuten. Azalpen luzeak egin ziren adierazpen horretan, eta, besteak beste, honako konpromisoak hartu zituzten Andoingo Udal ordezkariak:

- "Berresten dugu Fronte Polisarioa dela Saharako Herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra, NBEk eta nazioarteko komunitateak hala onartuta".
- "Berritro salatzen dugu Marokok Mendebaldeko Sahararen duen presentzia legez kanpokoa dela, eta ezin duela eragin juridiko edo politikorik izan saharar herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzeko".
- "Baieztazen dugu Mendebaldeko Sahara Lurralde Ez Autonomoa dela, Nazioarteko Zuzenbidearen menpekoa, inoiz ez da Marokoko Erresumakoa izan, eta, horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa bertan behera uzteko eta Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzeko ahalbidetzeko exijitzen diogu".

Bertso saioa, igandean

Testuinguru honetan, Saharako herriaren aldeko bertso saioa ospatuko da Bastero Kulturunean. Ziu bertsolariak sortu den egoerari ez diotela iskin egingo. Kantari ariko dira Alaia Martin, Iker Zubeldia, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzaile Maddi Etxeberria izango dute. Sarrerak aurretik erosteko aukera dago Delgado, Stop, Enaitza eta Urrats merkatalguneetan. Sarreraren prezioa 6 eurokoa da.

BERTSOAK 2019KO SAIOTIK

Oporrak Bakean ekimena berriro martxan jarri dela eta, hona 2019ko bertso saioa gaia: "Sahararik kanpo, nolako oporraldia imajinatzen duzue?"

Maialen Lujanbio:

Amak esan dit arnastu batek egiten dula mesede. Medikutara bixiteke ere aztertu nazaten xehe, beste herri, haur eta familitan ibili nadila trebe. Nik itsasoa ikusi nahi det geurea ez bada ere.

Alaia Martin:

Itsasoa parez-pare handi omen eskaparatean. Haurrak jolasten egongo dira euren etxeko atean. Kapritxo bat dut handi-handia behin haraino joatean: gaua lotan pasa nahi nuke belardi heze batean.

Aitor Mendiluze:

Nik amesten det oporraldi bat beti izan behar zena. Inork mehatxuz ez galdetzea zein dedan nire izena. Zer litzateke ere desira, zer oporraldi zuzena. Oporraldi bat kezkarik gabe oheratuko naizena.

Unai Agirre:

Anai zarraren argazki batzuk nik ikusi nituen, ai! Zoru berdean zilipurdika edota ur freskotan blai. Orain amari begiratzean ez naiz esplikatzeko gai. Ilusioa badaukat baina, kezka pixka bat ere bai.

Agin Laburu:

Nik ere hala ezagutzen det ikusi dedan apurra. Ezezagunak ikaritzen du heldua gisa haurra. Unai eta biok lagunak gera ta hori ez da gezurra. Nik ere daukat ilusioa, nik ere badet beldurra.

berria

ERREMONTA TXAPELKETA 2022

zuk badakizulako

GALARRETA JAI ALAI

ERREMONTA BIZIRIK

GOIKOETXEA V • ODEI vs LOITEGI • ZALDUA I



FINALURREA

MARTXOAK 25 OSTIRALA

18:00-tatik aurrera

GOIKOETXEA V • ODEI vs LOITEGI • ZALDUA I

ALDABE • BARRENETXEA IV vs URRIZA • JUANENEA

SEGURDILA • ZUBIRI vs ETXARRI • LARRAÑAGA